

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 5520

*AGINDUA, 2018ko urriaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, Barakaldoko udalerrian (Bizkaia) «Haurkabi Barakaldo» haur-eskola pribatua ireki eta jardunean hasteko baimena emateko dena.*

Barakaldoko udalerrian (Bizkaia) haur-eskola pribatu bat irekitzeko eta jardunean hasteko baimena eskatuz «Asociación Educativa Haurkabi» entitatearen ordezkariak hasarazitako espedienteaz aztertu da.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeak horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek ikusi dira: Araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua (apirilaren 9ko BOE); apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretua (martxoaren 12ko BOE); 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxienezko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk (azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan) indarrean iraunarazten dituen azaroaren 16ko 215/2004 Dekretua (azaroaren 19ko EHAA), eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– 2018-2019 ikasturtetik aurrera jarraian zehazten den haur-eskola pribatua irekitzeko eta jardunean hasteko baimena ematen da:

Kode zenbakia: 48019638.

Izen generikoa: Haur-eskola pribatua.

Izen espezifikoa: «Haurkabi Barakaldo»

Titularra: «Asociación Educativa Haurkabi»

Helbidea: San Vicente kalea, 3. C-D-E, behea.

Udalerria: Barakaldo.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimentzen den irakaskuntza: Haur Hezkuntzako 1. zikloa.

Ikastetxearen edukiera: 4 unitate, honelako edukierakoak:

- unitate 1 urtebetetik beherako haurrentzat, 8 ikaspostuko edukierakoa.
- 2 unitate urtebetetik bi urtera bitarteko ikasleentzat, bakoitza 13 ikaspostuko edukierakoa.
- unitate 1 bi urtetik hiru urtera bitarteko ikasleentzat, 18 ikaspostuko edukierakoa.

2018ko azaroaren 9a, ostirala

2. artikulua.— Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateak emango dituzten irakasleen titulazio akademikoari eta hizkuntza-eskakinari dagokienez. Bestela, bidezkoa litzateke emandako baimena baliogabetzea.

3. artikulua.— Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxearen titularraren erantzukizuna izango da baldintza horiek betetzea.

4. artikulua.— Indarrean dagoen legeria betetzera behartuta dago ikastetxea, eta agindu honek adierazitako daturen bat aldatu behar bada, dagokion berrikusketa eskatzera.

5. artikulua.— Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen Lege Organikoaren 23. artikulua arabera, emandako baimena baliogabetu egingo da, ikastetxeak baimena emateko indarreko araudian ezarritako gutxieneko baldintzaren bat betetzen ez duenean.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo diru-laguntza deialdien bitartez laguntzarik lortuko denik.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 30a.

Hezkuntzako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.